# NAhitA

Septiembre 2010eko Iraila
Nº 11.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpena Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua

## >> ERREPORTAIA Reportaje

### AUTODEFENTSA FEMINISTA
### AUTODEFENSA FEMINISTA




%100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaile optikorik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.

## >> BERDINTASUNERAKO PLANAK
## PLANES PARA LA IGUALDAD

# >>PROGRAMA ´ESCUELA DE EMPODERAMIENTO´
# >>´JABEKUNTZA ESKOLA´ EGITARAUA

## IDENTITATEAREN ILDOA LÍNEA IDENTIDAD

Ate azpitik uzten al diogu sartzen indarkeriari? (10 ordu)
¿Dejamos pasar la violencia por debajo de la puerta? (10 h)
Del 19 de octubre al 16 de noviembre; martes, de 18:00 a 20:00 h. Formadora: Inma Merino
**Matrikula: 5 Euro · 0,5 KREDITU**

Gorputz-hizkuntzaren bidez gure buruekin eta gure bikotekideekin erlazionatzeko modua aztertuko dugu. Hainbat aspektu landuko ditugu: nortasun pertsonala, harremanaren baitan nortasun horri eusteak eta berori elikatzeak duen garrantzia eta berori ez galtzeko jartzen diren mugak. Amodiozko loturak eta bikote-harremanak ere aztertuko ditugu. Hausnarketa egingo dugu botere--harremanen eta berdintasun-harremanen inguruan, jabekuntza pertsonal eta kolektiboko prozesuetan mugatzen gaituzten arriskuez jabetuz.

Experimentaremos, a través del lenguaje corporal, la manera de relacionarnos con nosotras mismas y con nuestras parejas. Trabajaremos el yo personal, la importancia que tiene dentro de la relación mantenerlo y alimentarlo y qué límites ponemos para no perderlo. Analizaremos los vínculos amorosos y las relaciones de pareja. Reflexionaremos sobre las relaciones de poder y las de igualdad, tomando conciencia de los peligros que nos limitan en el proceso de empoderamiento personal y colectivo.

## FEMINISMOAREN ILDOA LÍNEA FEMINISMO

Espazioa eta denbora: AZTARNA FEMINISTAK transformaziorako eta sorkuntzarako tresna. (8 ordu) /
Espacio y tiempo: HUELLAS FEMINISTAS como instrumento de transformación y creación (8 h)
Del 30 de septiembre al 21 de octubre; jueves de 17:30 a 19:30 h. Formadora: Zaida Fernández
**Matrikula: 5 Euro · 0,5 KREDITU**

Tailer honetan emakumeon partaidetzari eta herriko espazio ezberdinei dagokienean emakumeok egin dugun erabilerari buruz hausnarketa eginez hasiko gara, eta gero espazio berriak nola sortu, beste batzuk nola berdefinitu eta berdintasunezko harremanak suspertzeko balio dezaketen hiri-eredu berriak nola eraiki eztabaidatuko dugu.

Comenzaremos reflexionando sobre la participación y utilización que de los diferentes espacios de nuestro municipio han hecho las mujeres para posteriormente debatir sobre la creación de nuevos espacios y resignificación de otros, y sobre la construcción de nuevos modelos de ciudad que fomenten relaciones igualitarias.

FEMINISMOA ETA EKOLOGIA: orainaldiaz berriro gogoeta egiteko eta etorkizuna eraikitzeko proposamena. (4 ordu) /
FEMINISMO Y ECOLOGÍA: una propuesta para repensar el presente y construir el futuro. (4 h)
Sábado 6 de noviembre de 10:00 a 14:00 h. Formadora: Yayo Herrero
**Matrikula: 5 Euro**

Emakumeen ekoizpenak eta naturaren lanak ikusezinak egin dituzten sustrai historikoetara joko dugu, ingurunearen krisia eta "hiritarren krisia" delakoak berdin dituzten zergatiak aztertuz. Halaber, gizartea eraldatzeko ekofeminismoak egiten dituen proposamenak ezagututo ditugu.
**Oharra:** Tailer hau Ondarroa eta Ermuko jabekuntza eskolek antolatzen dute eta ONDARROAko Kofradia Zaharrean izango da.

Nos acercaremos a las raíces históricas que invisibilizan las producciones de las mujeres y los trabajos de la Naturaleza, detectando las causas comunes de la crisis ambiental y la llamada crisis de los cuidados. Además, conoceremos las propuestas de transformación social que surgen del ecofeminismo.
**Nota:** Taller organizado conjuntamente por la Escuela de Empoderamiento de Ondarroa y Ermua e impartido en ONDARROA (Cofradía Vieja)

## KULTURA BIRDEFINITUZ ILDOA LÍNEA REDEFINIENDO LA CULTURA

Antzerki- tailerra (20 ordu) / Taller de teatro (20 h)
Del 18 de octubre al 1 de marzo; lunes de 18:00 a 20:00 h. Formadora: Miriam Herbón
**Matrikula: 5 Euro · KREDITU 1**

Tailer honetan antzerkia izango da pertsonaiak, egoerak, testuinguruak, elkarrizketak, oharrak, interpretazioa eta antzerkiegintzaren beste osagaiak aztertzeko tresna. Emakumeak eta feminitatea nola tratatu diren aztertuko dugu gure sormen-energia antzeztokian bideratzen ikasten dugun bitartean.

En este taller utilizaremos como herramienta el teatro para el análisis de personajes, situaciones, contextos, diálogos, acotaciones, interpretación y otros elementos del hecho teatral. Iremos desgranando cómo se ha tratado a las mujeres y la feminidad a la vez que aprendemos a dirigir nuestra energía creativa en el escenario.

**Oharra:** EHUren aukera libreko kredituak emango dira, baina unibertsitateko plan zaharrean ikasketak egiten ari diren ikasleen kasuan bakarrik

**Nota:** Se conceden créditos de libre elección de la UPV. Válido sólo para el alumnado que esté cursando estudios según el antiguo plan universitario.

## PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

OINARRIZKO AUTONOMIA PERTSONALA / CURSO DE AUTONOMÍA BÁSICA PERSONAL

### BESTELAKO EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES



KULTUR IRTEERA SALIDA CULTURAL · BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUA CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK ASOCIACIONES · SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK ...ETA ABAR CHARLAS...ETC.

Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

# Editoriala

Emakume legez eta gizon legez berdintasunaren alde borroka egiteko erantzukizuna daukagu, eta udal politikek hori eremu ezberdinetan lortzeko onenak izan daitezkeen estrategiak erabili behar dituzte. Udal planak tresna bat dira horretarako, eta Ermuan onartuta dago jada **emakume eta gizonen berdintasunerako III Plana,** 2013ra arte indarrean izango dena.

Egia da lan asko dagoela oraindik egiteko. Gauza batzuk beste batzuen aurretik daude: zaintza eta bizitzarako ezinbestekoak diren zereginetan erantzukizun-kidetasuna esaterako. Emakumeona da oraindik erantzukizun hori; badirudi gurea dela "besteak zaintzeko betebeharra", eta horrek hainbat gauzari uko egitea dakar gehienetan, bai pertsonal bai profesional mailan, baina horrek duen kostua ez da inoiz esaten.

Borrokan jarraitu behar dugu beharrezko aldaketak lortu arte.

Borroka honetan emakumeok eta sentsibilizatutako gizon batzuk gaude –gutxi, baina badira-. Talde horren baitan ez daudenak gizon dibortziatu edo bananduak dira, zeinak, hala ere, beraiekiko diskriminazio larritzat hartzen duten, elkarbizitza adiskide moduan hausten ez denean, seme/alaben eguneroko zaintza emakumeei ematea. Egiten duten seme-alaben *beti derrigorrezko* zaintza elkarbanatuaren eskaria, besterik kontutan izan gabe, guztiz susmagarria da, zeren ba da inola ere ahaztu ezin dugun datu esanguratsu bat: adiskide moduan egiten diren banaketa-prozesuetan gizonen %1 da bakarrik umeen zaintza beraientzat eskatzen dutenak.

Kontuz egin behar da analisia, gatazka eta interes ezberdinak ezkutatzen dituzten kontzeptuak nahasten baitira, seme-alaba adingabeen ongizateari batere onik egiten ez diotenak. Eskari horiek eremu politiko zenbaitetan zabaldu dira eta hedabideetan izan duten oihartzunak egintza ukaezina agerian uzten duen eztabaida sortzen ari da: mota horretako neurriak ezartzeak zalantza handiak eta zailtasun ugari sortzen dituela. Aragoin lehenengo legea onartu da gai horren inguruan: gurasoen elkarbizitza hausten denerako, familia-harremanen berdintasunerako legea, Zaintza Elkarbanatuaren Legea izenez ere ezaguna. Katalunian eta beste erkidego batzuetan ere hainbat neurri onartu dituzte baldintza eta erantzukizunak mugatu eta zehazteko.

Eztabaida horri ekarpen bat egin nahian honakoa esango nuke: zaintza elkarbanatuari feminismoak egiten dizkion kritikak desitxuratzea ez dela komeni: emakumeok, orokorrean, ez daukagu inolako interesik gizartearen berezko zaintzailetzat hartuak izateko, guztiz alderantzizkoa; eta **aitatasun eta zaintza arduratsuaren alde** gaude, berdintasunezko benetako gizartea bide horretatik datorrela uste dugulako.

Como mujeres y como hombres tenemos la responsabilidad de luchar por la igualdad, y las políticas municipales deben incorporar las estrategias que, en cada ámbito, la favorezcan. Los planes municipales son un instrumento para ello y, en Ermua, ya se ha aprobado el **III Plan para la igualdad de mujeres y hombres,** vigente hasta el 2013.

Queda bastante tarea, no nos engañemos. Algunas cuestiones siguen siendo prioritarias, como la corresponsabilidad en los cuidados y en la realización de las tareas indispensables para la vida. La realidad muestra que las mujeres seguimos asumiendo estos trabajos desde nuestra supuesta "obligación de cuidar", y esto significa casi siempre renuncias personales y profesionales, con un coste silenciado. Hemos de seguir luchando hasta conseguir los cambios necesarios.

En esa batalla estamos las mujeres y algunos -muy pocos- hombres sensibilizados, que también los hay. Quienes no están son aquellos grupos de hombres separados o divorciados que, sin embargo, se apresuran a calificar como *grave discriminación hacia ellos* el hecho de que, en caso de ruptura no amistosa de la convivencia, se otorgue a las mujeres la responsabilidad de los cuidados cotidianos de hijas e hijos. Su demanda de una custodia *siempre obligatoriamente* compartida de los hijos e hijas comunes, sin tener en cuenta nada más, genera sospecha, porque hay un dato revelador que no debemos pasar por alto: tan sólo el 1% de los hombres en los procesos de separación realizados amistosamente solicita la custodia de su descendencia.

Hay que tener cuidado en el análisis, porque se muestran unos conceptos confusos que parecen esconder conflictos e intereses distintos y que no contribuyen al bienestar de las hijas e hijos menores. Algunos ámbitos políticos se han hecho eco de estas demandas cuyo impacto mediático está generando un debate que revela un hecho incontestable: la imposición de este tipo de medidas genera serias dudas y muchas dificultades. En Aragón se ha aprobado la primera ley al respecto: es la *Ley de igualdad en las relaciones familiares ante la ruptura de convivencia de los padres,* también conocida como Ley de Custodia Compartida. Cataluña y otras Comunidades aprueban también medidas, precisando y acotando condiciones y responsabilidades.

Como aportación al debate, señalar que conviene no tergiversar las críticas a la custodia compartida hechas principalmente desde el feminismo. Las mujeres no tenemos, en general, ningún interés por continuar siendo consideradas socialmente las cuidadoras por naturaleza, sino todo lo contrario. Por ello apostamos por una **paternidad y custodia responsables**, porque creemos que esa es la vía para conseguir una sociedad más igualitaria.

# >> EZAGUTZEN AL DUZU...? ¿CONOCES? <<

## EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA
## ESCUELA DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES

Hau Basauriko Udalaren Berdintasun Alorraren ekimenez 2003an jaiotako proiektu aitzindaria da. Apur bat geroago Ermua, Getxo eta Ondarruko udalok batu ginen proiektu horretara gaur "Emakumeentzako Jabekuntza Eskolen Bizkaiko Sarea" izenez ezagutzen dena eratuz.

Los objetivos principales de la Escuela son el **empoderamiento**, entendido como un proceso de toma de conciencia del poder que individual y colectivamente tenemos las mujeres y el **ejercicio de la ciudadanía activa y nuestra participación social y política,** para que como mujeres podamos participar en las políticas públicas, de las que históricamente hemos sido relegadas. A través de la Escuela, las mujeres adquirimos las herramientas conceptuales y prácticas adecuadas para la participación activa y directa como ciudadanas.

Hainbat jarduketa-ardatz estrategiko (emakumearen nortasun eta subjektibotasuna, komunikazioa, feminismoa, munduko emakumeekiko elkartasun eta elkartrukea, osasuna) garatzean oinarritutako ereduari jarraitu dio eskolak, non prestakuntza, sistematizazioa eta prozesu osoaren ebaluazioa eta beste kultura batzuetako emakumeekin hartu-emana guztiz garrantzitsua den.

## 2009-2010 IKASTURTEA
## ENCUENTRO FIN DE CURSO ERMUA 12 JUNIO


>>Emakumeok Ermuko plazan!

Ikasleentzako ikastaro kalitatezkoak eta interesgarriak antolatzeaz gain, lau eskolen arteko topaketak eginten dira ikasturtean zehar, bakoitzean herri baten, emakumeen partaidetza soziopolitikoarekin eta jabekuntzarekin zerikusia duten gaietan sakontzeko.

En esta ocasión, el evento consistió en un encuentro-reflexión conjunta, para lo que se adaptó la metodología del *world cafe,* basada en pequeños grupos, reunidos en diferentes mesas alrededor de un café (o té…), con turnos rotativos guiados para hablar sobre el tema elegido: el amor, desde una perspectiva crítica feminista. Hubo tiempo también para la fiesta, y el éxito fue total, participando cerca de 100 mujeres.

# EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III PLANA ERMUAN 2010-2013

El pasado 30 de junio el pleno de la Corporación local aprobó por unanimidad el III Plan para la igualdad de mujeres y hombres en Ermua. Nuestro municipio ha sido pionero en la elaboración e implementación de planes municipales de igualdad desde el año 1995, cuando se aprobó el primero de ellos. Este nuevo plan se ha realizado sobre la base del diagnóstico de situación de mujeres y hombres en Ermua, hecho en 2008, que contó con la subvención de Emakunde, al igual que la realización de este III Plan.




Berori lantzen Daiteke enpresa aholkularia aritu izan da, eta bereziki Udaletxeko bertako tenikari eta politikariak, emakume- eta herritar- elkarteekin batera. III. Plan hori 2013ra arte egongo da indarrean eta aldian-aldian ebaluatuko da, bertan planteatzen diren neurrien betetze-maila jakiteko..

Enlace:
http://www.ermua.es/pagsbiblio/fondo_local/archivos/documentos/Plan%20de%20Igualdad_21_07_2010_10_32_42.pdf

# BERDINTASUNERAKO PLANAK

Los planes para la igualdad son un instrumento para el impulso de este tipo de políticas, y se apoyan en las leyes actualmente en vigor en esta materia. A través de una serie de acciones, enmarcadas en objetivos, estos planes persiguen tener un impacto en la sociedad, de manera que sea más igualitaria para mujeres y hombres.

Eraginkorra izan dadin ezinbestekoa da, plana bera ez ezik, berori martxan jartzeko behar diren giza- eta material-baliabideak ere edukitzea. Plana herritar guztientzat da: gizon, emakume gizarte-eragile eta ororentzat, eta pertsona horien guztien partaidetza beharrezkoa da planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

# EMAKUNDEREN BABESA

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, María Silvestre, con su presencia en Ermua el día de la aprobación del III Plan, mostró su apoyo a este plan en concreto y a todos los planes para la igualdad, tanto municipales como supramunicipales, recordando el papel relevante que juegan en la puesta en marcha de las políticas para la igualdad.

Zorionak eman zizkion gure udalerriari gai honetan egin duen ibilbidearengatik, aitzindari izan baita, bai Udalaren eta bai emakume-taldeen partaidetza eta elkarlanari esker, azken horiek izugarri lagundu baitute beraien jarduera eta konpromisoarekin.



# >> AUTODEFENTSA FEMINISTA

# AUTODEFENSA FEMINISTA




La autodefensa feminista es mucho más que el aprendizaje de técnicas de defensa personal: es un instrumento para prevenir y combatir las agresiones sexistas a mujeres. A través de los cursos se pretende crear un espacio de reflexión sobre la violencia contra las mujeres (qué es, por qué se da y cómo se justifica…) y desde ahí plantear recursos individuales y también colectivos para hacerle frente.

## HISTORIA PIXKA BAT

Garrantzitsua da gogoratzea, eta aldarrikatzea ere bai, autodefentsaren ideia 80 urteetan sortu zela eraso-aurkako talde eta hainbat erakunde feministaren eskutik, emakumeak biktima pasibo barik, norbere buruaren defentsaren protagonista izan behar zutela planteatzen hasi zirenean. Horrela, emakumeen ahultasun fisiko eta zaurigarritasunaren estereotipoak hautsi egin ziren. Autodefentsako ikastaro horiek, biolentzia mota horren kontra antolatu eta borroka egiteko modu bat ezezik, hausnarketa feminista sustatzeko modu eraginkorra ere izan ziren.

>> SE PRETENDE CREAR UN ESPACIO DE REFLEXIÓN SOBRE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES (QUÉ ES, POR QUÉ SE DA Y CÓMO SE JUSTIFICA…) Y DESDE AHÍ PLANTEAR RECURSOS INDIVIDUALES Y TAMBIÉN COLECTIVOS PARA HACERLE FRENTE.

## ANTE LA VIOLENCIA MACHISTA, ¡AUTODEFENSA FEMINISTA!

Han pasado más de dos décadas desde aquellos primeros talleres. Tal y como dice el lema, creemos



que la autodefensa sigue siendo válida para combatir este tipo de violencia. Una violencia que es necesario enmarcar dentro de la estructura social sexista en que vivimos y que la legitima hasta el extremo de ser **los únicos delitos en los que la víctima se siente culpable y el agresor se siente víctima.**

No se trata, como se ha pretendido, de hechos aislados. Aunque la violencia más directa la sufren mujeres concretas, todas las mujeres, en general, sentimos temor a sufrir agresiones simplemente por el hecho de ser mujeres (por ello no vamos por los mismos sitios de día que de noche, no caminamos con la misma tranquilidad, nos organizamos para no ir solas a determinados sitios, a viajar…). De hecho, es algo muy habitual decir (sobre todo a las más jóvenes) "cuidado a dónde vas; vigila con quién vas; mira a ver lo que haces…" Con esto, además de cargarlas a ellas con la responsabilidad de los actos de los agresores, se construye y se va interiorizando un miedo a no se sabe muy bien qué. No se concreta ante qué tienen que estar alerta…, ni algo mucho más importante: no se muestran qué recursos tienen para afrontar y -sobre todo- prevenir las agresiones.

Éstas, entre otras cuestiones, son las que hacen que se plantee la autodefensa feminista y que se conciba como una estrategia para el empoderamiento personal y colectivo de las mujeres, porque esto es imprescindible para erradicar una violencia que imposibilita la vida de las mujeres en igualdad de condiciones con respecto a los hombres.

Mota horretako autodefentsa-programek norbere jabekuntzan laguntzen diete emakumeei, biolentzia-mota horren adierazpen guztiak identifikatu, aurreikusi eta horiei aurre egiteko baliabideez hornituz. Ikastaro eta tailerretan elkarri esperientziak kontatzeko, biolentzia-mota hori nondik datorren eztabaidatzeko eta biolentzia sexistaren egitura ulertzen laguntzeko espazioa sortzen da. Horrela eskubideen, biolentzia sexistarekiko erantzukizunaren eta berorri amaiera emateko gaitasunaren kontzientzia hartzen lagunduko digute, beste emakume batzuekiko elkartasun-sareak sortzeaz




gainera, banaka ezezik taldeka ere borrokatu ahal izateko.
Ermuko Jabekuntza Eskolakook badakigu zein garrantzitsua den autodefentsa feminista berdintasunaren aldeko eta sexismoaren kontrako borroka honetan, horregatik antolatzen ditugu tailerrak aldiro-aldiro Duzun adina duzula, halakoren baten parte hartu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Emakumeen Topalekuaren bitartez.
Gainera, interesdunon esku jartzen dira ondoko helbideak ere, gaiarekin zerikusia duen informazioa aurkitzeko.

http://autodefensafeminista.blogspot.com
(blog para la reflexión y propuestas contra la violencia sexista)

http://avatarberdintasuna.blogspot.com
(blog creado con motivo de la campaña del 25 de noviembre con noticias, difusión de actividades, campañas…)

http://www.vidasolidaria.com/pdf/guia-contra-violencia-sexista.pdf
(Guía para chicos y chicas contra la violencia sexista)

# GOGORATU!

El día **25 de noviembre** se conmemora
el **Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres**
y todos los años se organizan en Ermua actividades de denuncia
y solidaridad con las mujeres víctimas de estas agresiones.

## ¡INFÓRMATE Y PARTICIPA!

# KALE INKESTA

## Preguntas
## GALDERAK

**1 Neurri egokia iruditzen al zaizu epaitegiak seme/alaben erdibanako zaintza ezarri ahal izatea auzibidez, alegia, adiskidetasunik gabe dibortziatzen diren bikoteen kasuan?**
¿Te parece una buena medida que el juzgado pueda imponer la custodia compartida de los hijos e hijas a una pareja que se divorcia de forma no amistosa?

**2 Elkarrekin bizi izan diren artean txikien zaintzaren banaketa errealik izan ez bada, zer uste duzu: bikotea banandu edo dibortziatzean erdibanako zaintza ezarri beharko litzatekeela?**
Si durante la convivencia familiar no ha habido un reparto real entre la pareja para el cuidado de las criaturas ¿crees que debería imponerse la custodia compartida después de una separación o divorcio?

**3 Zure iritsiz, erdibanako zaintza epaitegiak ezarri beharko luke kasu guztietan ala aita eta ama ados daudenean bakarrik?**
En tu opinión, ¿la custodia compartida se debe designar siempre por el Juzgado o tan sólo para los casos en que ambos progenitores estén de acuerdo?

### JONE ARGINTXONA
**(23 años)**



1. Yo creo que, al final, un hijo siempre es responsabilidad de los dos, ¿no?
2. Si los padres han estado juntos y no han cuidado por igual a ese hijo, cuando se separen la responsabilidad sigue ahí, por mucho que uno haya aportado más y otro menos.
3. Si se ve que los dos le han cuidado bien sí se debería dar, pero si uno de los dos no está interesado en su hijo, se debería mirar por su bienestar y no dar la custodia compartida

### RICARDO GASTÓN
**(47 urte)**



1. Ez, baina ez dakit zergatik uzten den beti amaren esku seme-alaben zaintza; gehienetan amak izaten du eta ez dakit zergatik.
2. Seme-alaben zaintza ez konpartitzearen zergatia aztertu beharko litzake: lanagatik izan ote den, edo ezinezkoa gertatzen zitzaiolako... Berriz, nahi izan ez duelako bada, beste gauza bat da.
3. Ados badaude ez dela bitartekorik behar uste dut, baina adostasunik ez badago, bai.

### ROSA BALTAR
**(34 urte)**



1. Ez, ez dauka zentzurik; emakumearentzako zigorra izango zen. Ezin dugu ahaztu dibortzio kasu askoren artean emakumeen kontrako tratu txarrak daudela eta beste hainbatetan, banaketa eta gero, senar ohiak emakumea kontrolpean izateko seme-alabak erabiltzen dituela….
2. Nire ustez inposatu behar dena da erantzukidetasuna. Zergatik ez da legea erabiltzen honetarako? Zaintza emakumeen ardura dela ulertzen da oraindik, aitek bere ardura ezkutatzen duten bitartean. Hainbat emakumek ama izatean, beharra edo ikasketak alde batera lagatzen dute umeak zaintzearren…eta honek emakumeak egoera larria uzten ditu banaketa kasuetan.
3. Ez dauka zentzurik erdibanako zaintza emotea biak ados ez badaude… Seme-alaben ongizatearen kontra doa. Ematen du lege horiek beste interes batzuen alde egiten ari direla.

### ALVARO RUIZ
**(24 años)**



1. No sabría decirte. En principio los hijos tienen que tener al padre y a la madre, aunque sea no amistoso.
2. En ese caso, compartida no. Pero que se asegure el derecho a visitarle y eso para el que menos ha hecho
3. Depende de cómo hayan terminado. Si han terminado bien yo creo que podrían llegar ellos mismo al acuerdo; si no, por el juzgado

# PASATIEMPOS

# DENBORAPASA

## BESTE EMAKUME BATZUK MAITATU DITUZTEN EMAKUMEAK

**Lotu itzazu izenak ematen dizkizugun datuekin, eta horien biografiaren aspektu zenbait ezagutuko dituzu.**

## MUJERES QUE HAN AMADO A OTRAS MUJERES

Relaciona sus nombres con los datos que te aportamos y conocerás algunos aspectos de su biografía.



| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | XIX. mendeko londrestar idazlea | A | JODIE FOSTER |
| 2 | Socióloga y sufragista estadounidense nacida en 1860 | B | CHAVELA VARGAS |
| 3 | Destacada escultora y escritora feminista, nacida en 1934 en Minnesota. | C | MARTINA NAVRATILOVA |
| 4 | Poetisa griega nacida en Lesbos en el 650 a.c. | D | JANE ADAMS |
| 5 | 1956an Pragan jaiotako tenis-jokalari ospetsua | E | KATE MILLET |
| 6 | Kosta Rikako abeslari ezaguna (1919) | F | CARMEN BURGOS |
| 7 | Monja italiana del siglo XVI, condenada por la inquisición. | G | VIRGINIA WOOLF |
| 8 | Periodista y pedagoga del siglo XIX | H | SOR BENEDETTA CARLINI |
| 9 | Los Angelesko aktore, zuzendari eta filologoa (1962) | I | SAFO |

**ERANTZUNAK / RESPUESTAS**

1-g; 2-d; 3-e; 4- i; 5- c; 6- b; 7- h; 8- f; 9- a

# Noticias de interés

## ALBISTE INTERESGARRIAK

### >> EL FEMINISMO ATRAVIESA LA HISTORIA O CÓMO HA SIDO LA HISTORIA DE LAS MUJERES

Es el título de un material didáctico dirigido al alumnado del primer curso de Bachillerato especialmente para la materia *"historia del mundo contemporáneo"*, editado por el Instituto Asturiano de la Mujer. Su objetivo principal es que el alumnado pueda (re)escribir, en cierta medida, la historia contemporánea que le ofrecen los libros de textos y hacerla así más equitativa. Con ello se pretende que, en el futuro, en sus lecturas y en sus experiencias, las alumnas y los alumnos puedan hacerse preguntas y encontrar respuestas sobre cuál ha sido y debería ser el papel de las mujeres en la historia. Este material puede descargarse desde la página **http://tematico.asturias.es/imujer/upload/documentos/IAM-U_823489.pdf**

### >> BERDIN-BERRI BULETINA

Debegesa elkartearen webguneko emakume eta gizonen berdintasunerako ataria da. Ekimen hau Debegesa lantzen ari den Aukera Berdintasunerako Planaren baitan kokatzen da eta horren helburua gaiaren zabalkundea eta sentsibilizazioa sustatzea da. Sartu **http://www.debegesa.com/ciudadania/igualdad-de-oportunidades/berdin-berri-1/berdin-berri** webgunean eta albisteak, deialdiak, dokumentuak, ikerketak edota lotura interesgarriak aurkituko dituzu aukera berdintasunaren inguruan.

### >> TRIBIAL FEMINISTA

Las Áreas de Igualdad de los Ayuntamientos de Ermua, Arrasate, Basauri, Ondarroa, Zierbena y la Mancomunidad de Uribe Kosta han creado un *Tribial Feminista*, un juego didáctico con 1.200 preguntas que hacen visibles las aportaciones de las mujeres en diferentes ámbitos del saber y la vida, y el largo camino recorrido por el Feminismo como teoría política y como movimiento social fundamental del siglo XX. Ermua ha repartido 250 ejemplares en centros educativos, biblioteca, locales de jóvenes… Si deseas adquirir un ejemplar, en Ermua está disponible en la librería Maribel, por el precio de 20 euros.

### >> "PRIMERA VOCAL" LIBURUTEGIAK BULETINA ARGITARATZEN DU HILERO

Buletin elektroniko hau sexologia munduko profesionalen eta sexualitatera hurbildu nahi duten pertsonen arteko talde-lanaren emaitza da. Ekimen horren bitartez gaiaren inguruko bibliografia berri guztia jarriko du Primera Vocal liburudendak gure esku, bai eta arloko profesionalek liburu interesgarrien inguruan egiten dituzten iruzkinak ere. Buletin horren harpidetza ondorengo posta elektronikoan egin daiteke: **primeravocal@primeravocal.com**

### >> ESTUDIO "FISCALIDAD Y EQUIDAD DE GÉNERO"

Dirigido por María Pazos este estudio realizado en el periodo 2009-2010 se inscribe en el necesario análisis de la política fiscal y de sus efectos sobre las desigualdades, así como de la búsqueda de medidas que coadyuvan a alcanzar mayores índices de justicia fiscal. Los resultados obtenidos por los equipos de investigación hacen referencia a: Chile, Ecuador, España y Guatemala .Tras su presentación el pasado mes de julio en la *XI Conferencia Regional sobre la Mujer de America Latina y el Caribe*, esta publicación está disponible en: **http://www.fundacioncarolina.es/es-ES/Publicaciones/Paginas/DT43.aspx**

### >> CINE EN VIOLETA

"Cine en violeta" LRM Comunidad de Conocimiento desde la Perspectiva de Género izenekoaren proiektua da **(link: http://lrmgenerandoconocimientodegenero.blogspot.com/)**. Gune horretan gai feministaren gaineko dokumentalak eta filmak aurkituko dituzu: erreferenteak, historikoak, artistak, aurrelariak, jakintsuak, jabetuak, indarkeriaren aurkako ekintzaileak, orotarikoak, borrokalariak… Informazio guztia: **http://lrmgenerandoconocimientodegenero2.blogspot.com/** helbidean duzu eskuragai.

### >> "¿CÓMO DICES? GUÍA PARA UNA COMUNICACIÓN CON EQUIDAD DE GÉNERO"

La ONG Mugarik Gabe ha publicado su propia guía didáctica con propuestas para un uso no sexista del lenguaje tanto en euskera como en castellano. En ella se facilitan herramientas prácticas aplicables al ámbito de lo cotidiano y al laboral, así como recomendaciones para un uso igualitario de las imágenes y contenidos audiovisuales. La guía está disponible en: **http://www.mugarikgabe.org/dmdocuments/guicom.pdf**




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Julia López, Idoia Carracedo, Olatz Gil, y Zaida Fernández.

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
Trazos de Igualdad

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
***Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.***



*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
***Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.***


Casa de la Mujer / Ermua
Emakumeen Topalekua

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA


Casa de la Mujer
Emakumeen topalekua
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: 943 171 030 Faxa: 943 170 123
E.posta: casadelamujer@udalermua.net
web: www.ermua.es



Depósito Legal: BI-243/2010